

WARNER MADRID PARKERA BIDAIATZEKO MAKUSI KLUBAK ANTOLATUTAKO ZOZKETAREN OINARRIAK

LEHENENGOA.- Zozketa antolatuko duen enpresa

EITB MEDIA SAU (EITB): IFK: A48139232 eta egoitza soziala Basurtuko Kaputxinoen kalea 2, 48013 Bilbo.

BIGARRENA.- Denbora-eremua

Promozioa indarrean egongo da 2026eko maiatzaren 4tik ekainaren 21era arte.

Zozketa 2026ko ekainean egingo da, ziurrenik hilaren 24ean.

HIRUGARRENA.- Legitimazioa

Sustapen honetan MAKUSI KLUBAko kide den adingaberen baten aita, ama edo tutorea den adin nagusiko edozein pertsona fisikok parte hartu ahal izango du. Kidean datuekin hartzen du parte.

MAKUSI KLUBAko kidearen nortasuna, adin-nagusitasuna eta ordezkartza-harremana NANA, familia-liburua edo, hala badagokio, tutoretza egiaztatzen duen agiria aurkeztuz berretsiko dira, saria ematen den unean.

EITBko eta EXPRESSIVE MEDIA PROJECTS S.L.ko, ALAIKI ZERBITZU GIZAKULTURALAK S.L.ko eta BRAIN AND CODE S.L.ko, MAIATZAREN 26KO 18/1982 LEGEAREN ALDI BATERAKO ENPRESA-ELKARTEKO, lan-kontratuko langileek ezin izango dute sustapenean parte hartu, eta debeku hori lehen mailako ondorengoei ere luzatuko zaie.

LAUGARRENA.- Komunikazioa

Promozioa EITBn jakinaraziko da, beste batzuen artean, hauen bitartez:

- Online euskarriak
- MAKUSI KLUBAren webgunea eta bestelako bitarteko digitalak, sare sozialak barne
- Bestelako komunikabideak, besteak beste, telebista eta/edo irratia

BOSGARRENA.- Sariak

Saria EXPRESSIVE MEDIA PROJECTS SL, ALAIKI ZERBITZU GIZAKULTURALAK SL ETA BRAIN AND CODE SL ALDI BATERAKO ENPRESA ELKARTEAK, MAIATZAREN 26ko 18/1982 LEGEA (ABEEa), zuzenean edo ABEEko kide den enpresaren baten bidez kudeatuko du eta berarena izango da baita ere irabazleari saria ematearen ardura (MAKUSI KLUBEKO adingabearen gurasoa edo legezko tutorea).

Hauxe izango da saria:

- Lau lagunentzako bidai bat (1) (bi heldu eta bi adingabe) WARNER MADRID parkera, A-4, irteera 22, 28330 San Martín de la Vega, Madril, honako hauek barne (*):

- Joan-etorriko garraioa (garraioa erreserba egiteko momentuan definituko da: Bilbo-Madril-Bilbo).
- Ostatua WARNER MADRIL Parkeak akordioa duen hoteletariko batean (egunen arabera irabazlearekin zehazteke), 2 egun/ 2 gau, gosaria barne.
- Parkerako sarrerak egun bat (1)erako.
- Parkera heltzeko garraioa ez da barne hartzen.

() Ez dira barne hartzen aurreko zerrendatik kanpo egiten diren gastu guztiak.*

Sariaz 2026ko ekainaren 24tik 2026eko abenduaren 31ra gozatu beharko da. Irabazleak bidaiak egiteko lehentasunezko datak jakinarazi beharko ditu 2026ko irailaren 7a baino lehen, ABEEak arretaz kudeatu ahal izan ditzan, garraioaren eta hotelen erabilgarritasunaren arabera. Data batzuk mugatuta egongo dira; uztailak 4–5, 11–12, 18–19, 25–26 eta abuztuak 8–9, 15–16.

Saritik kanpo daude Bilboko aireporturako/geltokirako joan-etorriak, aireportuko/geltokiko tasak, hoteleko, jatetxeetako eta parkeko gastu osagarriak, erregaien prezioen igoeren osagarri posibleak eta aurreko paragrafoan xehatutako sariaren definizioa gairiditzen duten ondasun edo zerbitzuetatik eratorritako bestelako gastu guztiak.

Sariaren gehieneko balorazioa HIRU MILA LAUREHUN (3.400 €)-koa izango da. Hala ere, kopurua aldatu ahal izango da, bidaiatzen den urteko sasoiaren arabera.

Argitzeko: ez da posible izango pertsona berberak MAKUSI KLUBAREN kide bat ordezkatzuz hainbat aldiz zozketan parte hartzea. Hau da, pertsona bakoitzak bakarrik behin parte hartu ahal izango du klubaren kide den adingabea ordezkatzuz. SISTEMAK EZ DU UZTEN KIDE BERTINAREKIN BI ALDIZ EDO GEHIAGO PARTE HARTZEN.

MAKUSI KLUBeko irabazleak bere amarekin, aitarekin edo MAKUSI KLUBEAN ordezkatzuz duen legezko tutorearekin bidaiatuko du, eta beste (2) pertsona aukeratu ahalko ditu bidaiatzeko baita ere bidaiara doazen pertsonak bi heldu eta bi adingabe badira.

Saria transferiezina da eta bere ordezkari ez da inolaz ere eskudirurik emango.

Irabazleari saria eman eta gero, ez da inolako negozio juridikoetan erabiliko.

Promozioaren saria erakusten duten irudi edo bideoetan benetako sariarekiko ñabardura txikiak dituzten ezaugarriak agertu ahalko dira. Horren ondorioz, EITBk ez du inolako kontratu edo legezko betebeharririk izango sari moduan zehatz-mehatz irudi edo bideoetan agertzen den ondasuna edo zerbitzua emateko.

EITBk promozio honen irabazleari eskatu ahal izango dio saria idatziz onar dezala. Irabazleak sariari uko egin ahalko dio. Ukapena idatziz aurkeztuko du eta irabazleak berak sinatu beharko du. Irabazleak sariari uko egiten badio, lehen ordezkari emango zaio eta horrela hurrenez hurren, ordezkari guztiak agortu arte. Ordezko guztiak agortzen badira, promozioa hustzat joko da.

SEIGARRENA.- Funtzionamendua

Honela gauzatuko da Promozioa:

- 1) Zozketa MAKUSI KLUBAREN web-an egingo da, www.makusi.eus/kluba/zozketak helbidean

- 2) Zozketan parte hartzeko beharrezkoa izango da erabiltzailea MAKUSI Klubeko kide izatea, eta webgunean saioa hastea (erabiltzaile eta pasahitzarekin) amak, aitak edo legezko tutoreak.

ZAZPIGARRENA.- Zozketa

Promozioaren irabazlea notarioaren aurrean 2026ko ekainean egingo den zozketatik aterako da. Prozedura ausazkoa izango da. Partaidetza bakoitzari zenbaki-kode bat emango zaio eta notarioak saridun bat (1) eta hiru (3) ordezeko aterako ditu. Azken horiek lehenengo, bigarren eta hirugarren ordezekoak izango dira, dagokion zenbaki-kodea atera den ordenari jarraikiz.

Irabazlea eta ordezekoak zehaztu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita zazpi (7) egun naturaleko epean, EITBk edo izendatu ditzakeen eragileek irabazleari sariduna dela esango diote eta oinarrietan xehatutako saria irabazi duela.

EITBko langileak ez dira promozioaren saridunak izango, debeku hori MAKUSI KLUBAko lehen graduako bazkide den ondorengoari ere aplikatuko zaio.

Emandako informazioarekin sariduna lokalizatzea ezinezkoa bada, aurreko paragrafoan adierazitakoa gertatzen bada edo sariari uko egiten badio, lehen ordezekoa sarituko da, eta horrela, ordezeko guztiak agortu arte. Ordezko guztiak agortzen badira, promozioa hustzat joko da.

Edonola ere, irabazleak EITBren eta MAKUSI markaren irudi eta ospe ona gordeko ditu.

ZORTZIGARRENA.- Helburua eta doakotasuna.

LEHIAKETAN parte hartzea doakoa da, eta MAKUSI KLUBAren bazkideen parte-hartzea sustatzea eta fidelizatzea du helburu.

BEDERATZIGARRENA.- Parte hartzeko mugak

EITBk eskumena du promoziotik kanpo uzteko baldintzak betetzen ez dituztenak, edo EITBren ustetan, legezko oinarri hauen aurreikuspenak urratu dituztenak.

Parte-hartzaileek aurkeztutako datuak egiazkoak izan beharko dira. Faltsuak badira, EITBk parte-hartzailea promoziotik kanporatu ahalko du.

Zehazki, EITBk eskumena izango du bertako langileak promoziotik kanpo uzteko.

Aurreko kasu horietan, kanporatutako parte-hartzaileek saria jasotzeko eskubidea galduko dute. Bateren batek promozioa irabazten badu, kanporatua izatean, saria lehen ordezekoari emango zaio eta horrela hurrenez hurren, ordezekoak agortu arte. Ordezko guztiak agortzen badira, promozioa hustzat joko da.

HAMARGARRENA.- Legezko oinarriak onartzea

Promozioan parte hartze hutsarekin oinarri hauek eta EITBk promozioaren inguruan emandako ebazpenen inguruko irizpideak oso-osorik eta erreserbarik gabe onartuko dira.

EITBk eskubidea izango du edozein unetan oinarri hauetan beharrezkotzat jotzen dituen aldaketak egiteko; horren barne egongo da soilik adierazpen moduan (baina ez modu mugatzailean) oinarriak indargabetzea, errepikatzea, zabaltzea, atzeratzea edo aldatzea. Egoera hori parte-hartzaileei jakinaraziko zaie promozioaren berri emandako hedabide berberetan. EITBk ez du inolako betebeharririk izango edo ez du konpentsazio ekonomikorik egin beharko parte-hartzaileei dagokienez.

HAMAIKAGARRENA.- Eskubideen lagapena

Irabazleak (eta berarekin doazenak) doan eta modu ezeztazinean EITBri baimena emango dio MAKUSI KLUBaren publizitate- eta/edo sustapen-jardueretan bere izena, abizenak eta irudia erreproduzitu, erabili eta zabaltzeko eta promozioaren irabazle gisa duen irudia finkatu, txertatu, zabaldu, erreproduzitu, zabaldu, komunikatu eta ustiatzea ahalbidetzen duen edozein sistema eta euskarriren bidez tratatzeko, inolako denbora- edo lurralde-mugarik gabe, eta horren guztiaren ondorioz EITBk ez du inolako ordainketa edo kontraprestaziorik egin beharko.

Ondorio horietarako, “sistema eta euskarriei” egiten zaizkien erreferentziak hedabide guztiei buruzkoak izango dira, baldin eta datu-lagatzailearen irudia eta ahotsa publikoki finkatu, erreproduzitu, banatu eta komunikatzea ahalbidetzen badute (adierazpen moduan bakarrik eta ez modu mugatzailean horien barne egongo dira prentsa, telebista, gailu mugikorrak...) publizitate-ekintzetan, besteak beste, MAKUSI KLUBaren aurkezpenak eta ekitaldiak.

Hori guztia dela eta, Irabazleak (eta haren bidaia-lagunak) EITBri lagatzen die, modu eskusiboan, zozketan parte hartzearen ondoriozko ustiapenak, irudi-eskubideak barne, munduko lurralde-eremuan, eskubide guztien indarraldi osoan. Barne hartzen da parte hartzeari buruzko jabetza intelektuala; irudi horiek guztiak finkatu, erreproduzitu, eraldatu, zabaldu, erabili eta jendaurrean jakinarazteko eskubideak baimenduz, haien partaidetza jakitera eman ahal izan dadin; Programan, horren making-of-ean edo programa eratorrietan, telebistako beste programa batzuetan edo EITBk eta bere lagapen-hartzaileek ahalik eta irudi horiek edozein bitarteko edo formatutan ustiatzea, eta adibidez, telebistako ustiapena, edozein emisio, transmisio edo emankizun, bideografiko, grafiko edo inprimatu argitaratzeko, bitarteko digitalen bidez edo elektronikoak, telefonia mugikorra eta Internet zein sare sozialak baliatuz, bai eta Programa bera zein hedabidea iragartzeko.

Irabazleak (eta haren bidaia-lagunak) konpromisoa hartzen du, halaber, agerpenarekin lotutako edozein jardueratan pertsonalki parte hartzeko lankidetzak, MAKUSI KLUBaren sustapenean, hala eskatzen bazaio, eskura dituen aukeren arabera.

HAMABIGARRENA.- Zerga-betebeharrak

Promozio honetako sariari aplikatuko zaizkio dagozkion zerga-betebehar guztiak, unean-unean aplikatzekoa den legeriaren arabera.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren (PFEZ) araudiarekin bat etorriz, jokoetan, lehiaketetan, zozketetan edo ausazko konbinazioetan ematen diren sariak (produktu edo zerbitzu jakin batzuen eskaintza, promozio edo salmentari lotuta egon edo ez) konturako atxikipenaren edo diru-sarreraren menpe daude, dagokionaren arabera.

Ondorio horietarako, 300 euro baino gehiagoko sariei aplikatzen zaien konturako atxikipena edo diru-sarrera atxikipen oinarriarekiko % 19koa da. Gauzazko sarien kasuan, sariaren balioa edo saria kudeatzeaz arduratzen den ABEEarentzat izan duen kostua % 20 handituta da.

Horri dagokionez, berariaz jasota geratzen da legezko betebeharrarengatik, ABEEak edo ABEEko enpresa kideren batek konturako atxikipenak edo diru-sarrerak sariaren balioaren gainean egin beharko dituela. Dagokion konturako atxikipena edo diru-sarrera egiteko betebeharrak formalaz gain, ABEEak edo ABEEko enpresa kideren batek hitzematzen du bere gain hartuko duela sariari dagokion konturako atxikipenaren edo diru-sarreraren kostua; hori guztia, albo batera utzi gabe irabazleak dagozkion gainerako zerga-erantzukizunei erantzun behar izatea, hurrengo atalean ezarritakoaren arabera.

ABEEak konturako atxikipenak edo diru-sarrerak sarien balioaren gainean egiteko betebeharrak salbuetsiz, saritik erator daitezkeen gainerako zerga-erantzukizun guztiak irabazlearen kontura izango dira, salbu eta une bakoitzean aplikatzekoa den legeriak kontrakoa xedatzea.

Horri lotuta, PFEZren ondorioetarako, 300 euro baino gehiagoko zerga-balioa duten sariak ondare-elementuak eskualdatu gabeko ondare-irabazitzat hartzen dira. Horrenbestez, irabazleak kontuan hartuko ditu PFEZren aitortpena egiten duenean eta tributazioan egongo dira zerga-oinarri orokorrean jasotako gainerako errentekin batera. Gainera, kuota osotik sartutako moduan kendu ahalko da ABEEak atxikitako zenbatekoa.

Horregatik, PFEZren erregulazioa konfiguratuta dagoen moduan, 300 euro baino gehiagoko zerga-balioa duten sariekin posible da irabazlearen errenta-aitortpenean ordaindu beharreko zenbatekoa gehitzea. Inpaktu hori aldatu egingo da zergadun bakoitzaren baldintza pertsonalen eta ekonomikoen arabera.

HAMAHIRUGARRENA.- Erantzukizunpeko adierazpena

EITBk promozio hau gure ordenamendu juridikoan jasotako legezatasun-, egiazkotasun- eta autentikotasun-printzipioak betez gauzatuko du eta arreta berezia jarriko dio adingabeak babesteko araudiari.

HAMALAU GARRENA.- Erreserbak eta mugak

EITBk eta ABEEk ez dute inolako erantzukizunik izango edozein motatako komunikazio-sareek gaizki funtzionatuz gero, baldin eta saria disfrutatzea eragozten badute, beste arrazoi batzuek.

EITBk eta ABEEk ez dute inolako erantzukizunik izango, baldin eta parte-hartzaileek emandako datuetan akatsen bat badago eta horiek identifikatzea eragozten badute.

HAMABOSGARRENA.- Oinarrien gordailua eta argitaratzea

Oinarri hauek www.makusi.eus webgunean ikusgarri daude eta promozioan parte hartu baino lehen parte-hartzaileek onartu egin beharko dituzte.

Bilboko Alfonso Batalla de Antonio notario jaunak gordeko ditu edo, hala badagokio, Juan Ignacio Bustamante Esparza notario kideak.

HAMASEIGARRENA.- Datuak babestea

Promozioko parte-hartzaileen datuak EITBk tratatuko ditu www.makusi.eus webgunean argitaratutako pribatutasun-politikaren arabera.

Parte-hartzaileen datu pertsonalak tratatzea legitimatzen duen legezko oinarria izango da oinarri hauetan araututako promozioan parte hartzeko kontratu-akordioaren betearazpena eta parte-hartzaileari aurretiaz eskatutako baimena, posible izateko ordezkutzen duen adingabea MAKUSI KLUBeko kide izatea.

HAMAZAZPIGARRENA.- Aplikatzekoa den legea eta jurisdikzioa

Promozioaren oinarriak Espainiako legeriak arautzen ditu.

EITBk eta promozioko parte-hartzaileek Bilboko epaitegi eta auzitegien jurisdikzioa beteko dute.

Oinarri hauen argitaratze-data: 2026/03/31